

Aretxagazeta

GABONAK DATOZ!

IKASLEAK IZANGO DIRA OPORRAK HARTUKO DITUZTEN LEHENAK



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Gabonetako egitarau
zabala Eskoriatzan /12

IKASTAROA

Amuskaren sukaldaritza
eskolak /09

LEINTZ GATZAGA

Baserriz baserri
GURELen eskutik /10

ETXEBIZITZAK: ABENDUAREN 22AN ZOZKETA/6 • NIRE BIDAIA HURA: JON ETXEBERRIA/11

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 18
FRAILE. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99

DOMEKA, 19
ITURRALDE. Herriko Plaza 10... 943 79 21 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Sababazpi ikastola	943 71 21 18
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

ELIZBARRUTIKO OHARRAK
Gaur, egubakoitza, 19:00etan, adiskidetzearen sakramentua, parrokian. Bihar, zapatua, meza 19:30ean, katekesian ari diren umeen familiartekoei zuzenduta. Aste bukaeran egingo duten diru bilketa Caritas elkartearentzat izango da.

GAZTE EKIMENAREN EKINTZAK
Bihar, zapatua, 11:00etan, truke azoka, udaletxe zaharrean. 14:30ean, bazkaria eta 19:30ean, kontzertua Ardi Galduak eta Mossin Nagant taldeekin.

BASERRIKO PLASTIKO BILKETA
Abenduaren 28an atera behar dira plastikoak. Plastikoak uzteko tokiak: Lausittan, Bainuetxean eta Oroko bidegurutzean.

GABONETAKO KONTZERTUAK
Bihar, zapatua, akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du, 20:30ean, parrokian. Martitzenean, berriz, Leizarra musika eskolak emango du kontzertua, parrokian, 18:30ean.


LORAMENDIRENAGENDA

MAGOAREN EMANALDIA
Sun magoaren emanaldia, gaur, egubakoitza, 17:30ean, udaletxe zaharrean. Loramendik eta Algara ludotekak antolatuta.

DEBAGUNEREN EGUTEGIAK
2005eko egutegiak atera berri ditu Debagunek, elizkizunetako argazkiekin osatuta. Datozen egunetan Loramendiren bazkideei doan banatuko dizkiete. Erostea aukera ere izango da Loramendi elkartearen 2,70 euroren truke. Gainera, Seaskaren egutegiak eskuratzeko aukera ere bada Loramendin; horiek hiru euroren truke saltzen ari dira.

ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN

Bixente Pagoagak irabazi gazta txapelketa



Arrasateko Santamasetako gazta txapelketan lehenengo saria irabazi zuen Bixente Pagoagak, Mitarte Garai baserrikoak. Plaka bat eta 22.000 pezeta eman zizkioten. Bestalde, urte hartan bertan, Joseba Aranasko ogia aurkeztu zuen Santamasetako ferian, eta sari berezia eman zioten.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Goratu"



Laudatu.
—Periodikuak Arkonada zeruraino goratu dau.

JON IRAEGI JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

HELDUEN LITERATURA

- 'Orain galdera berriak ditut' / Lander Garro
- 'Lurtarra da begiratu' / Xabier Etxabe
- 'Curvas Peligrosas' / Maitena
- 'Mejor que no me lo expliques' / Imma Monsó
- 'Cabo Trafalgar: un relato naval' / Arturo Pérez-Reverte
- 'El río de la desolación: Un viaje por el Amazonas' / Javier Reverte
- 'Jardines de Canela' / Shyam Selvadurai
- 'Las golondrinas de Kabul' / Yasmina Khadra
- 'Verdes valles, colinas rojas: la tierra convulsa' / Ramiro Pini-la
- 'Otoño Azteca' / Gary Jennings
- 'Sangre Azteca' / Gary Jennings
- 'Vademécum' / Arantzazu Amegaza Iribarren
- 'Memoria de mis putas tristes' / Gabriel García Márquez

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!


EKAINAREN 7tik AURRERA Zorion agurrak ASTELEHENEKO GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.



ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

ATREBENTZIAEZPADA/ Erosi dittuzu Gabonetako erregalu eta janak?



MARIJOSE DOMINGOS
langillie



ANA MARI LASKURAIN
etxeoandrie




JABIER OÑEDERRA
erretiratue



LAURA PEREZ
langillie



JOSEMARI MENGE
langillie



JUSTO HERNANDEZ
erretiratue

Ez dittut ondiokan erosi, baiñe seme txikiñendako bakarrik erosiko dot erregalue. Familixan erabaki geuen erregalok ez erostie. Jana, barrez, beste etxe batzuetara fango garenez...

Aurten berandu nabil, baiñe erregaluek erosteko asmue badauket. Janarixe, barrez, azkenengo egunetan, ondiokan astixe badau eta. Hala eta be, turroiek erosi dittut.

Erregaluek andriek erosten dittu, baiñe nik neuk loba txikiñendako erosi dot. Plastilinie erosi dutzet. Janaz be andrie arduraketan da, berak badaki zer gustetan jakun.

Ondiokan ez dot ezer erosi. Gabon gabien sorteu egin, eta zeñek zeñei erregalue egin jakitten dogu. Gero, erregaluek erosi eta Errege egunien banaketan dittugu. Astixe dau.

Erregaluek ez dittut ondiokan erosi, baiñe asmue, bai. Hiru lagun elkarrekin bizigare, eta alkarrei zer bait erregaletako asmue daukou. Jana be erosi dogu, bildotsa jango dogu.

Andrie arduraketan da horrekin kontuokin. Erregaluek egitten dittugu, baiñe andriek erosten dittu. Jana be andriek erosten dau. Neuk maixen jarri eta jan egitten dot.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ASKOTAN HORRELA Ilargi plaza parean sarritan ikusten den argazkia: edukiontzi inguruak zaborrez gainezka, edo, oraingo honetan bezala, kartoiak edukiontzitik kanpo. Inguruan dendak daudela eta, edukiontziak segituan betetzen dira, beraz, neurriren bat hartu beharko litzateke kartoiak ez daitezen kanpoan geratu. Egun haizetsuetan, gainera, arazoa areagotu egiten da. /M.A

ETABARRUAN...

HIRIGINTZA /06

Etxebizitzen zozketa 22an

Etxebizitza sozialetan zozketa egingo da datorren eguaztenean, kirol etxean, 11:00etan.

KIROLA /08

Xake jokalarien erronkak

Fran Miguel eta Aitor Alcaide xake jokalaria Gupuzkoako Txapelketa hastear daude.

HURRETIK /11

Denda berri bat herrian

Arantza Izurak etxetresnen denda zabaldu du herrian, eta hainbat galdera egin dizkiogu.

ASTEKODATUA

1.826

EURO GASTATUKO DITU UDALAK ARGITAN

Urtero moduan, Udalak Gabonetako argiak jarri ditu kaleak apaintzeko. Guztira 1.826 euro gastatuko ditu Udalak Gabonetako argiak direla eta. Hainbat tokitan jarri dituzte argiak.

BESTEKEKESANA

“Nire ustez, liurrategi anaiek epe berri bat markatu zuten, estilo berri bat sortuz.

Punta puntakoa, memento horretan egiten ari zen puntakoena. Gazteak izan arren, filosofia jakin bati heldu zioten: oxigenorik gabe, teknika jakin batzuk, prestaketa eta entrenamendu oso neurtua... Eta ez bakarrik horretan, estilo etiko berri bat zuten, jarrera pertsonal berezia jendearen aurrean azaltzeko. Nik askotan gogoratzen dut Albertok 14. zortzi milakoa egin zuenean idatzitakoa: “Lo triste de este comentario es haber tenido que conjugarlo en un doloroso singular”. Izan ere, ekarpena biena izan zen. Felixen heriotza, nire ustez, euskal alpinismoak izan duen kolpe moralik handiena izan da”.

ANTXON ITURRIZA
‘ZAZPIKA’/04-12-05

HERRITARRENBERBAK/ Angel Bergaretxe



Lau errege

Bai, hala da. Musean egiteko moduan gaude bailaran. Izan ere, sasoi hauetan urtero bisitatzeko gaituzten hiru errege urrutikoz gain, laugarren batek (kanpotarra hau ere), bisitatu gaitu aurten, ohikoei aurrea hartuz, gainera. Inportanteagoa ote?

Borboitarrek Euskal Herrira eginiko bisitak polemikoak izan ohi dira, baina oraingo honek bereziki harrotu ditu hautsak. Ez bakarrik bisitariengatik, baita gonbidatzaileen nortasunagatik, eta gonbidapena egiteko erabili den moduagatik. Isilpean, eta azken ordura arte inork jakin gabe egiteak, mina eta haserre bizia sortu ditu kooperatibistonean. Txarrena zera da, bera, bapozan eta edanda etxera lasai asko itzuli den artean, hemengo zalaparta ez dela berehalakoan baretuko. Berriz ere, kanpotarra dela eta, gure artean muturka Euskaldunok!

Guzti hau marketing hutsa

izan omen da. Ez naiz ni gai hauetan aditua, baina ez dakit ba honelako kanpaina baten eragin denak onak izango diren. Dena den, eta eraginkortasuna alde batera utzirik, FAGOREK propagandarako erabili izan ditu beste baliabide batzuk askoz be sinpatikoagoak:

“Borboitarrek EHra eginiko bisitak polemikoak izan ohi dira, baina oraingo honek bereziki harrotu ditu hautsak”

txirrindulari taldea, gozokiak, giltzatak... Eta nola ez, oilar baten irudia zuen gomazko panpina hura. Alde edarra orduko eta oraingo oilarren artean. Hark, estutuz gero txistu egiten zuen, eta oraingoak, aldiz, txistu egiten

badiozu, atzamarra erakusten dizu, keinu zatar bat eginez. Badirudi, bestalde, gustura egoten dela gure artean, gero eta maizago dator eta. Galdera da guk hain atsegin ote dugun bera. Nik behintzat, aurten be Olentzero nahiago edozein errege baino. Eta aspaldiko oilar hura lako batzuk banatzea eskatuko diot gainera, ea non gauden eta nondik eta zertarako sortu ginen gogoratzen laguntzen digun.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Maria Agirre
ERREDAKZIOA
Maria Agirre
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
Imanol Soriano

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin
ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94
ISSN
1134-2609
TIRADA
2.700 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagak
Udala



M. J. Aretxaga

Urteko azkena

Ezer baiño lehenau, Esteban Gorroño ekarri gure dot gogora. Egun gutxi dala fan zan gure artetik Esteban, baiñe Aretxagazetakuek esan duztie eskerrak emuteko, batien edo bestien lagunketako gizona beti gertu egon zan eta. Herriko rebistan behintzet, makiña bat bider lagundu euen erretratu zaharreko aurpegixek asmaketan. Esandakue, Esteban, eskerrak beti lagun izen zaittugulako.

Lagunek fatie gauza tristie izeten da, baiñe alaittasun giruen bukatu gure dot. Izen be egunotan izengo da poztasunik hartzeko modurik herrixen bertan. Urrin fan barik, eguaztenien egingo daue etxien sortue, eta hori gutxi bazan, denda askotan egingo dittue otarren sortuek. Horrein zain nau ni behintzet, errekauek egitten hasi aurretik.

HEZKUNTZA/ Datorren astean jaialdiak egin eta Gabonetako oporrak hartuko dituzte

Ikastetxeetan Gabon giroan sartu dira buru-belarri eta laster oporrak hartuko dituzte

Herriko ikastetxeetan opor giroa usaintzen da, eta irakasle eta ikasleei gutxi falta zaie oporrak hartzeko. Datorren astean, astelehen edo martitzenean, oporrak hartuko dituzte.

GABONETAKO JAIALDIAK

Datorren martitzenean egingo duten jaialdiarekin, Basabeazpiko ikasle eta irakasleek oporrak hartuko dituzte. Egun horretan, gurasoak joango dira ikastolara umeak kantuan entzutera, eta Olentzeroren bisita ere izango dute.

Kurtzebarri eskolako gazte txoek, berriz, eguaztenean hartuko dituzte oporrak. Azken eguna jai giroan pasako dute Kurtzebarrikoek ere. Haur Hezkuntzakoei Olentzero joango zaie goizean, eta horren ondoren txistorra jateko Lehen Hezkuntzakoekin elkartuko dira.



Ikastetxeetako gelak Gabon giroarekin apaindu dituzte, Kurtzebarri ikastetxean esaterako.



MARIA AGIRRE

LABUR

San Martin-San Jose kofradiak lau kide berri ditu, eta laster presidentea aukeratuko dute

Kofradiako lau kidek kargua utzi ondoren, honako hauek aukeratu berri dituzte: Iñigo San Miguel, Angel Mari Bengoa, Xabier Igarua eta Jose Ramon Quintanilla.

Kofradiak hilaren 8an egin zuen urteko batzarra, eta bertan partaide berrien izenak eman

zituzten ezagutzera. Laster, gainera, presidente berria aukeratu beharko dute, Elisabeth Izagirrek kargua utzi baitu. Horretarako bilera egingo dute, eta zortzi kideen artean kofradiako presidentea nor izango den aukeratu dute.

Hirurogei lagunek parte hartuko dute hilaren 26an izango den Gabonetako kontzertuan

Aretxabaletako Abesbatzak eta Leizarra Musika Eskolak gertu dute abenduaren 26ko kontzertua. Hirurogei lagunek esku hartuko dute ordubete iraungo duen kontzertuan. Parrokian izango da emanaldia. Kontzertuan Eguberritako kantuak

izango dira nagusi. Hasierako minutuak gregorianoari eskainiko dizkiote, baina horren ondoren kantu herrikoiak kantatuko dituzte. Eta hilaren 21ean, bestalde, Leizarra Musika Eskolak bakarka eskainiko du kontzertua.

J.J. IRURE
ITURBENTZAN

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

AZKARATE
aroztegia

943 76 47 19
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak

LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO
INDUSTRIALDEAN
BERGARAN

KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Jou Diaz
Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Expres

Santakurtz 16
943 79 23 43

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko

GABONAK EGIN ITZAZU FORUMen, KIROLA OPARI



-30%

**WINDSTOPPER
TERNUA
KINBANE**

~~164⁰⁰€~~

114⁸⁰€



SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6, Arrasate
www.forumsport.com

Iragarki honetako prezioek eta sustapenek 2005-01-06 arte balio dute, akats grafiko edo tipografikoengatik edo izakinak ahitzeagatik izan ezik



MARIA AGIRRE

Deba ibaiaren beste aldean egingo dituzte etxebizitzak. 185 etxebizitza Udalak finkatutako salneurrian salduko dira.

HIRIGINTZA/ Abenduaren 22an, 11:00etan, egingo da etxebizitza sozialen zozketa

Loteria beharrean, etxeak zozketan eguaztenean

MARIA AGIRRE

Abenduaren 22a egun seinaltua izan ohi da Loteria Nazionalaren zozketa berezia egiten delako. Aretxabaletan, berriz, 185 etxebizitza sozial zozketatuko dituzte. Kirol etxean egingo da zozketa, eta 293 lagun izenak sartuko dira kutxa batean.

293 lagunek Eguberritako oparia aurrez jasotzeko aukera izango dute hilaren 22an. Horietako batzuk, baina, 185, aterako dira pozik kirol etxetik.

Datorren eguaztenean, 11:00etan, 185 etxebizitza sozialen zozketa egingo du Udalak kirol etxean. Notarioa etorriko da zozketa egiteko. 293 lagun izenak kutxa batean sartu, eta guztiak aterako ditu. Atera ahala, zerrenda osatuz joango da notarioa. Era horretako 185 etxebizitza emango badira ere, izen guztiak aterako dira, aurrerago ordezkoen beharra egon daiteke eta.

ETXEA AUKERATZEN JOANGO DIRA

Zerrenda osatuta, 185 lagun etxebizitza aukeratzeko joango dira. Zerrendan lehenengo daudenek

aukera handiagoa izango dute nahi duten etxea aukeratzeko. Bruesa eraikuntza enpresak adierazitakoaren arabera, zozketa egin eta gehenez lau hilabetera aurkeztuko dituzte planoak, eta orduan egingo da etxeen aukeraketa. Lehenengo, bigarren eta hirugarren solairuetako etxeak izango dira aukeran, gehienak hiru gelakoak, baina bikoak ere izango dira. Laugarren solairuko etxebizitzak, berriz, merkaturako salneurrian salduko ditu Bruesak. Geroago berriz, Etxebidek babes ofizialeko etxeak zozketatuko ditu.

MAIDER ETXANIZ/GAZTE TEKNIKARIA

"Gazteei bideak ireki nahi dizkiegu"

M.A

Osorok gutxi darama Aretxabaletan lanean, baina gazte teknikari aukeratu berri dutela eta, bere lanaren nondik norakoak azaltzea eskatu diogu. Bere buruaren inguruko argibideak ere eman dizkiegu.

Esan egiguzu nor zaren.

Maider Etxaniz naiz, 30 urte ditut, elgoibartarra naiz eta Soziologia ikasi nuen. Duela gutxi aukeratu ninduten gazte teknikari lanerako. Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalenda egingo dut lan.


Zein izango da zure lana?

Gazteendako zerbitzu eta ekipamenduak antolatzea. Gazteen inguruan ari garenean, 3-29 urte bitartekoak hartzen dira aintzakotzat. Baina Aretxabaletan, 12-17 urte bitarteko gazteendako hasiko gara lanean, uste baitugu adin tarte horretako gazteek behar handiagoak dituztela. Horientzat eskaintza bat antolatzen hasiko naiz. Hortik abiatuko gara.

Gazteek izango dute proposamenak egiteko aukerarik?

Jakina, eta hori gurako nuke. Lehenasuna nerabeek izan arren, gainontzekoek ere nirekin harremanetan jarri eta edozein proposamen egiteko aukera izango dute. Nik eskariak bideratzen lagunduko diet, edo dirulaguntzak lortzen.

Gazteen arloan baduzu esperientziarik?



MARIA AGIRRE

"12-17 urte bitarteko gazteendako lanean hasiko gara, behar handienak dituztenak baitira"

Foru Aldundian izan naiz lanean, gazteen inguruko ikerketak egiten eta udalei gai horretaz aholkuak ematen. Gutxi gorabehera ezagutzen nuen Aretxabaletako egoera.

Asmoa ez da gazteak kontrolatzea, ezta?

Ez da hori helburua. Gazteei bideak ireki nahi dizkiegu, betiere hiritartasun aktiboa sustatuta.

Lasai

Mirian Manteca
masajista

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
- Kraneala
- Estrukturala
- Funtzionala
- Lotura muskularrak

ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

SADHANA YOGA ETA
PSIKOTERAPIA ZENTROA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentroa
Santa Kurtz 24
20550 ARETXABALETA
Tel.: 616 965 795

Esko Sport

Zorionak eta urte berri on!

Intxaurtxueta 5, ESKORIATZA. 943 71 52 96
LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Hirusta Iatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

2004/2005

EUSKARA

IKASTAROAK


Eskaintza: Euskalduntze maila guztiak, Alfabetatze, EGA.
Ikastaro bereziak: MINTZAMENA LANTZEKO, SAKONTZE...
Informa zaitez!

Erritmoak: Erritmo guztiak.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.
16 urtetik gorakoentzat.

Bulego-ordutegia: Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00

**gabon zoriontsua
opa dizuegu**



Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /
maila guztiak /
Ordutegi zabala /
Bekak / HABEko diplomak ...

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4 | 20550 ARETXABALETA |
Tel.: 943 79 21 68 | Faxa: 943 79 92 62
Intxaurtxueta 10 | 20540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net



www.udaleuskaltegiak.net

Aretxabaleta | Arrasate | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza |
Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

KTIIBOS



ZAPATA DEMDA

**ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!**

Murubide 2 behea • Aretxabaleta
Tel.: 943 53 37 33

ABENDUAREN 21EAN HASIKO DA GIPUZKOAKO XAKE TXAPELKETA

Fran eta Aitor xake jokalariaiek Gipuzkoako Txapelketa jokatzera

Joan den asteburuan Oñatin jokatu zuten, eta Aitor Alcaide bigarren sailkatu zen

M.A

Ez da lehenengo aldia Fran Miguel eta Aitor Alcaidek Gipuzkoako Xake Txapelketa jokatzeko dutela. Abenduaren 21ean abiatuko da aurtengo txapelketa, eta herriko xake jokalariaiek aukera handiak dituzte. Aitorren ustez, Franek txapelketa irabaz dezake.

Abenduaren 29an bukatuko da Gipuzkoako Xake Txapelketa, eta duela urte batzuk bezala, oraingo honetan ere Fran Miguelek badu sailkapenean lehenengo geratzeko aukerarik. Aitor Alcaide kideak, behintzat, hala uste du. Biek hala biek txapelketa polita jokatzeko asmoa dute Donostian, Manteo kiroldegian.

Hala ere, txapelketa horretara ez dira Gipuzkoako xake jokalaria onenak joaten. Gabonetan jokatzeko delata eta, xake jokalaria askok nahiago du oporrak hartu.

Joan den asteburuan, berriz, Arlutz xake taldeko sei jokalaria esku hartu zuten Oñatin jokatzeko txapelketan. Azpimarratzekoa Aitor Alcaide bigarren sailkatu zela, eta Fran Miguel



Aitor Alcaide bigarren sailkatu zen Oñatin jokatu zuen txapelketan.

ARTXIBOA

bosgarren. Aretxabaletar biek aurrez aurre jokatu, eta Franek irabazi egin zion Aitorri. Hala ere, gainontzeko partidetan Franek Aitorrek baino gehiagotan

galdu zuen. Oñatin jokatu txapelketan Azerbaijango Azer Mirzoev sailkatu zen lehenengo. Guztira 32 lagunek parte hartu zuten txapelketan.

LABUR

Bihar, zapatua, jokatu dira esku pilota txapelketako finalak Iturrigorri frontoian

Lagun arteko esku pilota txapelketako finalak jokatu dira bihar, zapatua, 11:00etatik aurrera, Iturrigorri frontoian. B mailan, Asier Heriz eta Agorre Leintz Gatzagakoeak, Oñatiko Isasti anaiak izango dituz-

te aurrez aurre.

A mailan, berriz, Arrasateko Juantxu eta Aretxabaletako Unai Uriartek, Asier Muxika eta Josemari Carrillo aretxabaletarren aurka jokatu beharko dute.

Spinninga egiteko beste lau bizikleta erosi dituzte kirol etxean, eta orain 18 daude

Spinninga arrakasta handia izaten ari dela eta, kirol etxean beste lau bizikleta erosi dituzte, eta une honetan 18 daude.

Era horretan, spinninga egin nahi dutenek izenematea

egin dezakete kirol etxean. Aukera ugari dago, astelehene egubakoitzera goiz, eguerdi eta arratsaldean. Bestalde, aerobic eta gimnasiarako aukerak ere badira.

UDA bederatzigarren postuan dago, eta hurrengo partidua Ordiziaren aurka du

Joan den asteburuan Urolaren aurka bina berdindu ostean, asteburu honetan Ordiziaren aurka jokatu du partidua pre-

ferente mailako UDAk. Partidua Ordiziaren zelaian jokatu beharko dute, zapatuan, 15:30etik aurrera.

Abenduaren 20an zozketa egingo dute kirol etxeako kantxa eta frontoien erabilerarako

Kirol etxean kantxa eta frontoia erabili nahi dituztenek izenematea egin behar dute kirol etxean, astelehenean zozketa

egin baitute, 18:00etan. Zozketa aurretik ere egin daiteke izenematea. Martxora arte emango dituzte zozketan.

SAIO BEREZIA
HARMAILATIK


Jon Odriozolaren agurra


Astelehenean, abenduaren 20an,
21:00etan

Aurkezlea:
Julen Iriondo

Goitb
Goiena Tebista

Ikustekoa!





ALBOKA
GAZTE MODA

Durana 36 ARETXABALETA 943 77 16 10

**Gabon
zoriontsuak igaro!**

- Erakusketak
- Antzerki, zine eta musika-zikloak
- Liburuen argitalpena
- Kanpaina desberdinen eragiketa
- Erakusketa eta ikus-entzunezko materialen alokairua

K U L T U R G A I A K

HURBIL

KULTURA ZERBITZUAK

HURBIL KULTURGAIK, S.L.
Arkarazo auzoa • Bikarixuena baserria • p.k. 160
20550 ARETXABALETA

tel.: 943.71.42.08 • faxa: 943.71.47.08
e-posta: hurbil@hurbilkulturgaiak.com

Mota guztietako gidatzeko
baimenak ateratzeko aukera.
LARRINGANEK.

Ordutegia, zure beharretara
egokitua.
LARRINGANEK.

Testak egiteko CD bat etxera
eramateko aukera,
irakaslearen jarraipen osoarekin.
LARRINGANEK.

Eskolak ordenagailuz gidatutako
proiektagailu bidez




Basabe poligonoa F-0-7
Aretxabaleta

Garibai etorbidea 5
Arrasate

Urtariletik aurrera
Berria!

Gogo pixka bat.
NORBERAK.



Akelarre



Dekorazio-altzariak

• Proiektuak egiten ditugu

ARETXABALETA • Errekabarren 1 • Tel.: 943 53 33 40



HURRETIK



Arantxa
Izura

Dendarixe

Abenduen lehenengo egunien inaugurau euen Artzubi dendie Arantxak; baiñe hurrengo egunien zabaldu euen ofizialki. Etxetresnak saltzen dittu. Getarixan jaixo, Mondraguen bizi eta oin, azken urtiotan, atxabaltartute dauela esaten dau.

Zer dala eta etxetresnen dendie?

Hamabost urtien egin dot lan beste batzuekiko; oin, baiñe, neure negoziue jartie erabaki dot.

Zeure etxien dendako modernuena dauketzu?

Neure etxie praktikuaue da, eta dendako gauza gutxi daukou.

Emakume eta gizonezkuiek gauza antzerakuek erosten dittue?

Gizonak material elektriko bille etortzen die. Entxufe eta kabliek erosten dittue, baiñe gizon gutxi etortzen da plantxa bat erosten.

Bezeruekin ondo moldatzen zara?

Bai, oso gustura nau. Izen be, aurretik ezauketan nittuen asko etortzen die. Beste asko saludetan eta zorte ona emuten gerturaketan die. Eskertzekue da.

Desberdin erosten daue gazte edo nausi batek?

Duda barik. Nausixek gauza tradizionalauek gura dittue, eta gaztie hainbeste pentsau barik erosten daue.

Gabonetarako ze opari salduko da hobien?

Teknologixe barrixe: MP3ak, argazki kamara digitalak...

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

NIREBIDAIAHURA / Jon Etxeberria

Oihan Beltza, Alemania / 2004ko abuztua

Abuztuko lehenengo hamabostaldian Alemaniako Oihan Beltzean izan ziren oporretan Jon eta beste hiru lagun. "Gutako bat egonda zegoen aurretik, eta hark gomendatuta erabaki genuen hara joatea. Furgoneta bat alokatu eta bi egunean egin genuen bidaia. Ibilgailua nahiko zaharra zenez, denbora luzeagoa behar izan genuen Oihan Beltzera iristeko; arazorik gabe egin genuen bidaia", azaldu du Jonek.

Ekipajearekin batera, bizikletak ere sartu zituzten ibilgailuan lau lagunek. "Gure asmoa ahalik eta toki gehien bisitatzea zen. Bidegorriak nonahi aurki daitezke, eta gainera, gidariak asko errespetatzen dituzte txirringululariak. Ez genuen arazorik izan bi gurgilen gainean ibiltzeko orduan. Ez genuen egunean kilometro askorik egiten. Hirietan ere, furgoneta aparkatu eta bizikletaz kalean gora eta behe-ra joaten ginen".

Alokatutako furgonetan har-tu zuten ostatu. "Toki ugari daude egokituta ibilgailuak utzi eta bertan lo egiteko; kanpinak kasu. Hala ere, gau batez aterpetxe batean egin genuen lo. Herri bakoi-tzean gutxienez bat aurki daite-ke eta oso giro polita egoten da horietan", azaldu digu.

Oihan Beltzean bioklima- arauak gogotik jarraitzen dituz- tela adierazi du. Hala, hango zuhaitzen egurrarekin egiten dituzte etxeak: "Teilak ere, egur- rez egiten dituzte askok. Bes- talde, etxe gehienetan eguzki-pla- kak dituztela ikusi genuen", gai- neratu du.



"Bidegorriak nonahi aurki daitezke, eta gidariak asko errespetatzen dituzte txirringululariak"

Herriei dagokienez, Freiburg hiria asko gustatu zitzaieñ lau lagunei. Unibertsitate-hiria da,

eta beste bizi erritmo bat dute bertan. Oso ondo zaindutako hiria, lasaitasuna arnasten da bertan", eman du aditzera Etxeberriak.

Oihan Beltzean bi aste bes- terik ez egin arren, "bertako jendea oso jatorra dela esan dezakegu. Alemanez ez dakigu hitzik ere, eta ingelesez egiten genuen eurekin. Norbaitek hiz- kuntza ez zekienean sortzen ziren estutasunak".

Gau giroa ere ezagutu zuten euren oporraldian, eta oso lasaia dela eman du aditzera Jonek. "Tabernetako mahaian eseri eta hitz egiten igarotzen dute denbora luzea. Musikaren bolumena egokia da, elkar uler- tzeke aukera ematen du. Hemen, toki gutxitan gertatzen da hori".

Z.V.M.



Egurrezko etxe tipikoa; bioklimatika arauak gogotik betetzen dituzte.

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Gabon zoriontsuak guztioi!

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

Iber

★ Loteria ★

✿ Paper denda ✿

* Liburuak *

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

GORKA GARAI
taxi gidaria

TAXI

Mugikorra:
607 318 560



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko abenduaren 17a / 191. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABALETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Olentzero eta gaztetxoentzako parkea protagonista aurtengo Gabonetan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Datorren astean Gabonak hasiko dira; jende askok ospatzen ditu egun horiek Eskoriatzan. Olentzerok onak izan diren haur eta gazteei opariak ekarriko dizkie; horretarako, 24an herria bisitatuko du. Giro berezia izango da egun horretan.

Gabonak ganean daude, eta askok jai izaten dute egun horietan. Eskoriatzan egongo da zer egin. Abenduaren 23an, esaterako, Musika Eskolako Bandak kontzertua eskainiko du. Datorren egunean Gabonetako kontzertua emango dute San Pedro elizan 20:00etan hasita.

Hilaren 24an, aldiz, jai giroan bete-betean murgilduko da herria. Izan ere, 12:00etan herriko haurrak plazan elkartu eta Gabonetako kantak abesten arituko dira Eskoriatzako kaleetan zehar. Ordu bete geroago, Trikitixa Eskolakoekin kalejira egiteko aukera izango dute herritarrek.

Gaztetxo asko Olentzero iristeko zain egoten dira urte osoan. Abenduaren 24an 13:00etatik 14:00etara izango dute ikazkinaren laguntzaileei eskutitzak emateko aukera. Arratsaldera



Kiroldegiko taberna eta harmailak zabaldu egingo dituzte erabili gura dituztenentzako

arte, baina, Olentzero ez da herrira jaitsiko. 17:30ean egingo diote ongietorria. Urtero bezala, Apotzagatik etorriko da mendian bizi den ikazkina, eta, txistulari eta soinu-joleekin batera, Olentzero kalez kale ibiliko da.

Bestalde, goiz eta arratsalde herriko plazan gaztaina erreteko aukera egongo da.

GABONETAKO PARKEA

Urtea amaitzeko, hilaren 28an, 29an eta 30ean haur eta gazteen-

tzako bi parke irekiko dituzte Intxaurtxuetako kiroldegian: bata kantxan (puzgarri, tailer, ludoteka, rokadromoa...) eta igerilekuan bestea (uretako puzgarriak). Aspertzeko arrazoirik ez dute izango eskoriatzarrek.

Musika bandak Gabonetako kontzertua eskainiko du San Pedro elizan hilaren 23an

Olentzerok zintzoak izan diren umeei opariak ekarriko dizkie; besteei aldiz, ikatza

Kiroldegiko kantxan eta igerilekuan gaztetxoentzat parkea jarriko dute urte amaieran

Aurten ez dute erakusleiho lehiaketarik antolatu Eskoriatzan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Hain zuzen, seigarren aldiz antolatu behar zuten Eskoriatzan erakusleiho lehiaketa; hala ere, ez egitea erabaki dute. Komertzio gutxi animatzen ziren parte hartzera. Bestalde, herriko dendariak aurrera jarraitzen dute herrian erostera bultzatzeko ekimenekin.

Duela sei urte hasi zen Udal Kultura batzordea Gabonetako erakusleihoen lehiaketa antolatzen. Aurten, baina, ez dute egingo.

Izan ere, Arantxa Untzueta Udaleko Kultura teknikariak aditzera eman duenez, "urtetik urtera parte-hartzaileen kopuruak behera egin du, eta lehiaketa egitea merezi ez duela ikusi dugu".

Ez da, baina, arrazoi bakarra izan Arantxaren esanetan: "Parte-hartzaile kopuruarekin batera, kalitateak ere behera egin duela uste dugu".

AURREKO ALDIAK

Herriko dendetako erakusleihok apaintzeak helburu bat zuela eman digu aditzera Kultura tek-

nikariak: "Herria jaietan girotzeko beste modu bat zen". Bestalde, herriko saltokien kontsumoa bultzatzeko ere egiten zela eman digute aditzera.

DENDARIEN ZOZKETA

Azkenik, eskoriatzarrek herrian eros dezaten lortzeko azaroan elkartu ziren dendek Gabonetarako txartel batzuk ateratzeko asmoa dute. Eskoriatzan erosi eta 1.000 euro irabazi promozioaren zozketa egingo dute. Urtarrilaren 5ean, arratsaldean zehar egingo dute zozketa.



Aurreko lehiaketa bateko erakusleiho irabazlea.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate) ..	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara) ..	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate) ..	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati) ..	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga) ..	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz) ..	945 23 20 30
PESA (Arrasate) ..	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate) ..	943 77 10 43
SOS Deiak 112

OHARRAK

PLASTIKO BILKETA

Abenduaren 28an, elizateetako plastiko bilketa egingo dute. Zarimuzko bidegurutzean batuko dute. Siloa estaltzeko, belar boletan erabiltzeko eta berotegi eta ortuak estaltzeko plastiko beltza eta berotegiko plastiko zuria jasoko dituzte.

OLAZAR ELKARTEA

Erretiratuen etxeko bazkide kuota eguneratua duten guztiek 55292 zenbakira euro bat jokatu dute abenduaren 22ko zozketan.

Hamabost emakume Amuskarekin sukaldean

Z.V.M.

Hiru egun iraun duen sukaldaritza ikastaroa egin dute herriko zenbait emakumek aste honetan. Gabonak aitzakia hartuta, egun horietarako jaki bereziak prestatzen ikasi dute. Ikasle gehienak Amuskako bazkide ziren, eta denak oso gustura aritu dira sukaldean.

Astelehenean hasi eta eguaztenera arte, Eskoriatzako Amuska emakume taldeak antolatuta Gabonetako sukaldaritza ikastaroa egin zuten Eskoriatzan. Askoentzat bereziak dira egun horiek, eta, hala, aparteko menua prestatu gura izaten dute, eta horretarako eman zuten izena hiru egun iraun duen sukaldaritza eskolan. Hamabost pertsona elkartu ziren Olazar elkarteko sukaldean, Hidalgo kalean; eurenkin, irakaslea eta haren hiru laguntzaile.

Ikastaroko parte-hartzaile guztiak emakumezkoak izan dira; irakasleak ere, andrazkoak. Marije Martinez izan zuten sukaldean gidari. Lehenengo egunean, esaterako, baba-entsalada eta esnegain eta intxaurrez eginiko turroia egiten ikasi zuten. Guztiek adi-adi jarraitu zituzten Marijeren azalpenak. Baina ez zen ikastaro teorikoa bakarrik izan; ikasleek sukaldeko tresnak hartuta jakiak prestatzen lagundu zuten, eta baita guztia batzen ere. Azken momentuan, gainera, bertan egindakoak dastatzeko auke-



Z.V.M.

Mahai inguruan azalpenak entzun eta ondoren sukaldean laguntzen dute txandaka.

ra izan zuten iluntzean elkartu ziren emakumeek.

ASPALDIKO IKASTAROA

Ez dute ikastaroa lehenengo aldiz antolatu. Izan ere, Amuska emakume taldea sortu zenetik - duela 19 urte - biltzen dira sukaldean moldatzen ikasteko.

Gabonetako ikastaroaz gain, hainbat urtean ikastaro luzeagoak antolatu izan dituzte. "Mutil gutxi animatzen dira sukaldaritza ikastaro horietara. Hala ere, duela bi urte antolatu genuen urtebeteko ikastaroan, mutil gehiago animatu ziren emakumeak baino", esan du Marijek.

LABUR

Atzo Santo Tomas txistor jana egin zuten Olazarkoek

Giro polita egon zen atzo, eguena, Olazar erretiratuen elkarteko egoitzan. Izan ere, arratsaldean txistor mordo prestatu zuten, eta askaria egiteko aitzakia izan zuten hara bertaratuak. Hogei urte darमतzate gutxi gorabehera Santo Tomas txistor jana egiten. Hala ere, aurten aurreratu egin dute ekimena, datorren eguaztenean, hilak 22, Arrasatera joan gura dute eta. Askariaren ondoren, batzordea eraberritzeko aprobetxatu zuten Olazarko bazkideek.

Domekan Aita Garayoa Abesbatza parrokian izango da

Donostiatik etorritako Aita Garayoa Abesbatzak emanaldia eskainiko du datorren domekan, hilak 19. San Pedro parrokian abestuko dituzte hainbat kantu Arkaitz Mendozaren gidaritzapean. 19:30ean hasiko da emanaldia.

Emakume eta gizonez osatutako korua da; berrogeita hamar kide ditu. Askotariko estiloak jorratzen dituzte, eta euren errepertorioa 80 abestiz osatuta dago; horietariko batzuk kantatuko dituzte Eskoriatzan. Bere ibilbidean, hainbat sari jasotako da Donostiako abesbatza hori, eta Euskal Herritik kanpo ere eskaini ditu emanaldiak.




- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

AZKOAGA

ESTANKOA


943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



Ondo pasau Gabonetan!

Aranburuzabala 22, behea • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 51 20

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274

NAIRA

Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

GABONAK OSPATZEKO HAINBAT EKIMEN ANTOLATU DITUZTE

GURELeko lagunek baserriz baserri abestuko dute musikariek lagunduta

Z.V.M.

Leintz Gatzaga herri txikia izan arren, datozen jaiegunetarako hainbat ekimen antolatu dituzte. GURELeko kideak aritu dira lan horretan bereziki. Olentzerorekin egongo dira abenduaren 24an. Herriko giroa alaituko dute, baserriz baserri kantuan joango dira eta.

Gabonak gainean daudela eta, Guraso Elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu datozen asteetarako. Izan ere, jaiegunak izan arren ez diete herriko gaztetxoei aspertzen utziko.

Itsaso Eginok GURELeko idazkari lanetan dihardu. Hark azaldu digu Gabonetarako zein asmo duten: "Abenduaren 24an, Olentzero egunean, aspaldiko ohitura bati jarraituko diogu. Hemengo gazte eta helduok baserritar jantzi eta, musikariak lagun ditugula, baserriz baserri joango gara. Askotariko abestiak kantatuko ditugu". 09:30ean hasiko dira.

Herritarrek primeran erantzuten diote ekimenari. "Giro polita sortzen da". Izan ere, inguruak musikaz girotzen dituzte. Baina Gatzagako herritarrek ez dira euren ibilbidean bakarrik egongo. Eurekin joango da baserriz baserri Olentzero. Ondoren, guztiek batera bazkalduko dutela eman du aditzera elkarteko idazkariak.

IRTEERAK GASTEIZ ETA ARETXABALETARA
Bestalde, urtea amaitu aurretik bi irteera egiteko asmoa dutela eman digu aditzera. "Gasteiz bisitatuko dugu. Egun batean zinemara eta Floridako jaiotza ikustera joango gara. Beste egun batean, berriz, izotz gainean patinatzerara. Oraindik, baina, ez dugu datarik zehaztu", gaineratu du.

Bestalde, urtarrilaren 5ean Aretxabaletara jaitsiko dira haur eta gazteak. 18:30ean irtengo dira, eta herri guztia zeharkatuko dute. Haiek ikusteko aukera, beraz, ez dute galduko herriko gaztetxoei. "Ez dugu zalantzan jartzen primeran igaroko dugula".



Baserrietetik ibili ondoren bazkaria egiteko ohitura dute GURELeko lagunek.

*Abenduaren 24an
Olentzero lagun
dutela joango dira
baserrietara
abestera*

*Zinemara eta jaiotza
ikustera Gasteizera
joango dira; eta
izotz gainean
patinatuko dute*

*Erregeak gustuko
dituztenek
Aretxabaletakoak
ikusteko aukera
izango dute*

LABUR

Ludotekan antzeztuko dute gaur gaztetxoei

Gaur arratsaldean, Leintz Gatzagako ludotekara joaten diren laguntxoek emanaldia eskainiko dute.

Izan ere, oporrak hartuko dituzte, eta hori ospatzeko, lan bat antzeztuko dute. 18:30ean izango da hitzordua, ludotekan bertan.

Helburua antzezlanaekin batera karaokea egitea den arren, oraindik ez dakite abestuko duten edo ez. Bertaratzen direnean emango diete horren berri ikusleei.

Gura duten guztiek ikus dezakete herriko txikienean antzezlana. Euren dohainak azalaraziko dituzte neska-mutilek. Entseututako lana izango denez, lasai irtengo dira taula gainera; eta ziur ludotekara gerturatzen direnak txunditurik uzten dituztela. Artista txikien emanaldia arratsaldean izango dela gogoratu Leintz Gatzagara hurbildu gura izanez gero.

Jaiotza goizean; arratsaldean, Josune Bereziartu

Bihar goizeko 11etan, herriko guraso elkarteak antolatuta, Leintz Gatzagako herriko plazan elkartuko dira gazte eta nagusiak jaiotza jartzeko, urteroko ohiturari jarraituz. Behin lan hori eginda, guztientzako saria egongo da. Izan ere, txistorra jateko aukera izango dute parte-hartzaile guztiek elkartean.

HITZALDIA ARRATSALDEAN

Aski ezaguna da Josune Bereziartu kirol munduan. Eskalatzen aritzen da, eta bihar, bere ibilbidearen nondik norakoak azalduko dizkie kultura etxera gerturatzen direnei; 19:00etan izango da hitzordua. Eskalatzea mugaraino eramatea atsegin du Josunek, ingurua sentitu, hauteman, entzun... AEB, Frantzia eta aritu den toki guztien berri emango du bihar.

ARTXIBOA

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA


SMS MEZUAK

Gustuko duzun talde, bakarlari edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!



Mezuak bidaltzeko jarri:

DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira.

Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.



Goienkaria





Maulanda *merenderoa* ZORIONAK DENOI!



MAULANDA MERENDEROA

Maulanda auzoa, 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Eguneroko
menua!




FRIXI

Eraikuntzak

**Hormigoizko estrukturak, urbanizazio , kontratak
eta enpresen mantenimenduak**

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!



ARTZUBI

ELEKTROGAILUAK



ARTZUBI
ELEKTRAGAILUAK



Gabon zoriontsuak
Atxabaltar guztioi!

ARTZUBI ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
Tel.: 943 53 31 86
Iparragirre 4 • Aretxabaleta